

Anton Abbadia, hizkuntzalari, literatur kritikari eta mezenas

(Anton d'Abbadie, lingüist, literary critic and
patron of the arts)

Urkizu, Patri*

Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia
Miraconcha, 48 - 20007 Donostia

* Euskaltzain gazilea
Eusko Ikaskuntza

*Anton Abbadia*ren lanak hizkuntzalaritzan bezala *literatur kritikagintzan ez dira batere ahanzteko*. Hor ditugu, adibidez, *Euskal Gramatikari* egindako bere *Prologomènes delakoak* (1836), non nabarmentzen den bere izpiritu konparatista, eta hala barne nola kanpoko ikerketen ezagutza sakona. Afrikako hizkerez eta bereziki etiopiarrez lan ederrak burutu zituen, eta askoren artean hor daude seinagarri, *Catalogue raisonné de manuscrits éthiopiennes* (1859), eta *Dictionnaire de la langue amariña* (1881), liburu mardul eta oinarritzakoak. *Literatur kritikari* ere izan genuen Abbadia, eta zorrotz baitzen orotan hor dugu *Altabizkarko Kanta-ren faltsifikazioaren salaketa goiztiarra* (1859), eta *Tartaria ipuinaz egindako azterketa eta hipotesi interesgarria* (1878). Halaber Lore Jokoak (1851) sortu zituelarik eta mende erdiz hil arte beraien mezenas gisara aritu, esan dezakegu euskeraren eta euskal literaturaren zutaberik nagusienetakoa izan zela *Euskal Herriko zazpi probintzietan*.

Giltz-Hitzak: Linguistika. Literatur kritika.

Los estudios de Antoine d'Abbadie tanto en el campo de la lingüística como en el de la crítica difícilmente pueden dejarse en el olvido. Ahí están, por ejemplo, los Prolegómenos a la Gramática Vasca (1836) en los que destaca su espíritu comparatista y profundo conocimiento de las investigaciones tanto internas como externas. Sobre las lenguas africanas y especialmente sobre las etíopes escribió obras espléndidas, tales como el Catalogue raisonné de manuscrits éthiopiennes (1859), y el Dictionnaire de la langue amariña (1881), libros densos y fundamentales. También fue crítico literario y con su perspicacia habitual formuló una temprana denuncia sobre la falsedad del Altabizkarko Kantua (1859) y un interesante estudio e hipótesis sobre el cuento titulado Tartaria (1878). Asimismo, al crear los Juegos Florales (1851) y ser su mecenas durante medio siglo hasta la fecha de su muerte, podemos afirmar que fue uno de los mayores promotores del euskara y de la literatura vasca en las siete provincias de Euskal Herria.

Palabras Clave: Lingüística. Crítica literaria.

Les études d'Antoine d'Abbadie, aussi bien dans le domaine linguistique que dans celui de la critique peuvent difficilement rester dans l'oubli. Nous y trouvons ainsi, par exemple, les Prolegomènes aux Etudes Grammaticales sur la Langue Euskarienne (1836) dans lesquels ressort son esprit comparatiste et sa profonde connaissance des recherches aussi bien internes qu'externes. Sur les langues africaines et spécialement sur les langues éthiopiennes, il écrit des oeuvres splendides telles que le Catalogue raisonné de manuscrits éthiopiens (1859), et le Dictionnaire de la langue amariña (1881), livres denses et fondamentaux. Il fut également critique littéraire et, avec sa perspicacité habituelle, il dénonça très tôt la fausseté de l'Altabizkarko Kantua (1859) et fit une étude et une hypothèse intéressantes sur le conte intitulé Tartaria (1878). Nous pouvons ainsi affirmer qu'il fut l'une des promoteurs principaux de l'euskara et de la littérature basque dans les sept provinces d'Euskal Herria en créant les Concours de Poésie (1851) et en en étant le mécène, jusqu'à la date de sa mort.

Mots Clés: Linguistique. Critique littéraire.

Gizon zehatza eta jakintsua zela ikusia da argi eta garbi aurrean emandako idazlan ezberdinen bilduman, eta bere intereseko gaiak ugariak zirela: artea, arkitektura, poesia, astronomia, etnografia, geodesia eta hainbat eta hainbat jakingai. 1835ean idatzi gogoeta, ikerketa eta bidai kaiserrean garbi agertzen zen, gazterik poemak idaztea maite zuela, hala ingelesez nola frantsesez eta euskeraz kantatzea ere bai. Ez dugu, ordea, hemen bere sor-keta lanak, poesia eta ipuinak, alegia, aurkeztuko, hizkuntzez eta literaturaz burutu saioak baizik.

Abbadiaren alde hauen aurkezpena eta ikerketa sakon batek, hots, hizkuntzez eta literatura ezberdinez idatzitako lan guztien azterketa kritiko eta zehatz batek gure jakintasunaren mugak gaintzen dituelarik, etiopiar hizkuntzetan ezjakin garenez, ahalik eta modurik errazenean beroien laburtze xume eta apal bat burutzen saiatuko gara hemen, besterik gabe, irakurle arruntari baliagarri izango zaiolakoan. Dena den, etiopiar hizkuntzei buruzko sarreratxo bat nahiko lukeenak jo beza Ugo Zanetti-rengana¹, zeinek, era berean hizkuntza entziklopedia batera igorri, dioen, 111 hizkuntza kutxitiko, 12 semitiko, hauen arteko nahasketa diren zenbait, eta 25 nilo-sahariano, beraz, 150etik gora, oraindik behar bezala ezagutugabeak mintzatzen direla Etiopian. Benetan hizkuntzalarien paradisua. Horrela bada, adituek aukera osoa izanen dute ene lantxo hau hala nola hemengo materialak beren begirada zorrotzez iruzkintzeko, eta beren errebista berezietan argitaratzeko.

Abbadiak plazaratu zuen lehenetariko lana Agosti Chahorekin batera izan zen, hau da, *Études grammaticales sur la langue euskarienne* (Paris, 1836) delakoaren "Prolegomènes"-a, euskal gramatikaren hitzaurrea, beraz, *Zazpi Uskal Harrietako Uskalduner* zuzendua. Liburu honen plazaratzea zela eta, Chahok igorri gutunean zioen bezala², honek luzexa izan zedin nahi zuen, bere gramatikaren agorra zertxobait hezatzearren. 50 orrialde dituen aitzin-solas honek euskeraren berezitasunak aipatzen ditu, nabarmentzen delarik, aitzineko gramatikarien, besteak beste, Oihenart, Harriet, Larramendi, Humboldt eta Léclosure-ren lanak ongiasko ezagutzen zituela, eta bazuela gainera hizkuntza anitzen berri. Hungaroa, finesa, hebraiera, laponiera, hala nola georgiera eta Ameriketako beste zenbait hizkuntza, zeinetarik bere ustez ketxua (?) zen euskerari gehientsuen hurbiltzen zitzaion izterlehengusua. Euskal bibliografiaren historia baterako ere ematen digu modu kritikoan oharrak, kontura gaitzkeelarik ordurarte argitaratu ia lan guztiak ezagutzen zituela, – dena den, bertan aipatzen direnen osagarriak irakur daitezke neronek idatzi bibliografian³. Eta kritiko agertzen dela, adibidez, Humboldt-ek *-tasun* eta *-keria* atzizkiei eman nahi dien esanahiarekin, edota zenbait hitz atzizki bezala hartu izan dituztenekin. Beraz, kritika Harriet eta ondorioz Léclosure-ren gramatikari (hau zorretan baitzaio hari nabarmenki) zuzentzen zaio.

* "Universidad Nacional de Educación a Distancia" delakoan irakasle titularra, Euskaltzaindian urgazle eta Eusko Ikaskuntzan Hizkuntza eta Literatura saileko burua.

1. Ugo Zanetti, "Les langues de l'Éthiopie et de la Corne de l'Afrique", *Æthiopia. Peuples d'Éthiopie. Textes réunis par Xavier van der Stappen. Cultures & Communications*, Gordon & Breach, Berlin, 1996, pp. 214-219.

2. Patri Urkizu, *Agosti Chahoren bizitza eta idazlanak, 1811-1858*. BBK-Euskaltzaindia, Bilbo, 1992, 46-49

3. Patri Urkizu, "Bibliografía", *Introducción a la filología vasca*. UNED. Madrid, 1991, pp. 135-206.

1837an, Brasiletik bueltan, Etiopiarabi abiatzen denerako arabe hizkuntza poxi bat ikasia zeukan eta Garcin de Tassy-ri⁴ Maltatik 1839-I-24an idatzi gutunean esaten dio⁵, eskerrak ematen dizkiola euskarari buruzko saiorako utzi liburuengatik. Halaber Afrikako zenbait hizkuntzez dio, amharna, ilmarna, someliac, chahay, tefal eta beste batzu familia semitikoaren barne sartu behar direla, baina *Journal Asiatique*⁶, errebista ospetsua baitan baldin bada aditurik hizkuntza hauetaz, beharko luketela bidali azterketak hitzun hauen artean egitera. Eta hala ez balitz, bere burua eskaintzen diola Elkarteari amharna edo amhárika hizkuntzari buruzko ikerketak aurrera eramateko.

Garai horretan (1839-I-16) Maltatik ere Jomard⁷ injenieri, geografo eta arkeologoari bidali gutunean⁸, Massawari buruzko berriak, shaho tribuarenak, gallatarrenak eta beste zenbait albiste igortzen dizkio. Halaber, El Kairoitik 1840-X-I2an idatzi gutunean arabear itsas hiztegitxo baten berri ematen dio Garcin-i, ohartzuz Ejiptoko iparraldeko kostatik ekialdekorako hitzetan diren aldaera ugariez. Alegia, lehenbizikoek mailegu anitz batipat italieratik duten bezala, besteek ez, eta berezkoak diruditenak direla. Hitzek nabigazioko haizeen deiturak, unti tresnenak, janariarenak eta horrekako beste zenbait gauzarenak jasotzen dituzte. Lehenik bere belarriaren arabera jasoak, eta gero Nicolas Chodsi, Sovayseko merkatariaren laguntzaz zuzenduak. Baina hiztegiarekin batera garbi dago geodesia azterketek are garrantzi handiago dutela bere baitan.

Hiri beretik, hau da, El Kairoitik 1840-X-2an Jules de Mohl-i⁹ bidali beste gutunean¹⁰ hamtonga hizkuntzaren berezitasunez mintzo zaio. Eta hitzun hauek, Bruce-k zioen bezala, langile abilak eta lapur areagoak direla, beren zaldiak guztiz estimatuak direlarik gerrarako. Hamtonga hizkuntzaren deklinabideak euskararenarekin analogiak dituela, dio, eta aditzak euskarak bezala ere oraina, lehena eta geroa era trinkoetan.

1840tik 1850era, jakina den bezala Etiopiako hizkuntzei buruzko material ugari biltzen saiatu zen, zeinetaz noizean behin berri ematen zuen Parisera bidali gutunetan, hauek *Journal Asiatique*-n argitaratzen zirelarik batipat.

4. Joseph-Héliodore-Sagesse-Vertu Garcin de Tassy, ekialdeko hizkuntzetan aditua. Marseille-n jaioa (1794) eta bertan arabe hizkera arrunta ikasia. Gazterik Parisera jo zuen hizkuntzen ikerketan murgiltzearen. 1838an *Académie des inscriptions et belles-lettres* delakoaren partaide izendatu zuten, eta liburuaz gain *Journal Asiatique*-n hamaika artikulu idatzia, hala nola tora, industania eta arabearen itzulpenak. Obren artean aipagarri: *Histoire de la littérature indoue et de l'indoustanie* (1837), *Poésie philosophique et religieuse chez les Persans* (1857) ...

5. *Journal Asiatique*, 7, 1839, pp. 364-366.

6. Errebista hau Abel Remusat, Saint-Martin, Klapproth eta Sylvestre de Sacy-k fundatu zuten 1822an Parisen, *Société Asiatique*-ren oihartzuna delarik. Bertako presidentia 1829an Abel Remusat orientalista izan zen.

7. Edme. François Jomard, injenieri, geografo eta arkeologo, Institutukoa (1777-1862), 1828an Errege Liburutegiaren administratzaile-kontserbatzaile izendatua. Beste zenbaiten artean liburuon egilea: *Remarques sur les cours du Nil, du Sénégal et le Gambie* (1822-28); *Aperçus et coups d'oeil sur les nouvelles découvertes dans l'Afrique centrale* (1824-28), *Recueil d'observations et de mémoires sur l'Égypte ancienne et moderne...*

8. *Bulletin de la Société de Géographie*, 11, 1839, pp. 112-114

9. Jules de Mohl, ekialdeko hizkuntzetan alemaniar aditua (Stuttgart, 1800). Ingalaterra egin bidai batean harremanak izaki orientalista ospetsuekin eta orduz gero Ekialdeko hizkuntzen ikerketara buru belarri jarri zen. Burnouf-en ordezkia izan zen *Académie des Inscriptions et belles lettres* -eko aulkian (1844). Persiera irakatsi zuen Collège de France- n eta 1852az gero Inprimategi Nazionaleko ekialdeko hizkuntzen moldeen ardura ukan zuen. Liburu eta artikuluanit argitaratu zuen.

10. *Journal Asiatique*, 1841, pp. 585-591.

1851ean bere aitaren herrira, Euskal Herrira itzultuta jadanik, uda partean hasten da Lore Jokoak antolatzen eta bertso saioak saritzen, garaiko gazetarien kronikak eta iragarkiek ongiasko adierazten dutenez. Hauen berri zehatzago emango dugularik KOPLARIEN GUDUAK (1851-1897), Abbadiaz idatzi hirugarren liburukian, jo beza bertara xehetasun gehiago nahi duenak.

Sustatzaile izateak ez dio kritika izpiritua kenduko, zeren urte batzu geroxeago Chahoren hiztegiak honela zioen, *nous montrerons notre sentiment de son importance par l'énoncé de quelques idées critiques, que l'auteur voudra bien nous pardonner*¹¹, hots, ez duela adiskidetasunak mingaina isilaraziko. Zeren Chahoren delako Alfabetoen gerrak gogo-eta baino irria gehiago eragin baitu, eta ez delako batere konforme hark harturiko zenbait aukerarekin. Adibidez, <gh>, <y>, eta <x> grafemekin, zeinen orde z hobesten dituen <g>, <j>, eta <ts>, Duvoisin eta Darrigolen arabera, hots: *egin, jainko, etsi...* Honetan garbi dago etorkizunak Abbadiari arrazoi eman diola.

Hiru urte geroago (1859) berriki euskarari buruz egin lanetaz mintzatuko da, eta batipat Louis-Lucien Bonaparteren lanez. *Il s'est mis à l'oeuvre en patron intelligent*, hots, honek, nagusi azkar gisa, lanean ezarri zituen, beraz, Biblia itzultzen euskerara apez mordoa eta zenbait maisu: Duvoisin, Intxauspe, Iturriaga, Bruno Etxenike Elizondokoa, Salaberry d'Ibarolle, Antonio Uriarte... Gehien goraiatzten duen lana Intxausperen *Le verbe basque* (1858) da, zinek balio dion berriro konparazioetan murgiltzeko batipat etiopiar hizkuntzekin. Mendeko ispilua dugu, beraz, argi eta garbi, hizkuntzalari konparatista gisa.

Urte berekoa ere (1859) da ordurarte argitaraturiko lanik nagusiena: *Catalogue raisonné de manuscrits éthiopiens*. Hemen 236 orrialde luzetan zehar, ordurarte bildu eskuzkribuen multzo handienaren berri ematen digu. Hau da, 233, non parte batean bederen Etiopiako egoera fisiko eta moralaren berri ematen den. Ediziorako aurkitu zailtasunak eta laguntzak silaba molde ezberdinez kontatzen digu hitzaurrean. Hala, Burnouf¹² jaunak eskainitako laguntza, honek konprenitzen baitzuen ongi ekialdeko moldeetan edertasunak duen garrantzia.

Nola Ludolf¹³ eta beste zenbaiten moldeetarik alde eginez hotsak hobeto irudikatzearen bere molde bereziak asmatu behar izan dituen. Jerusalem Frantziako kontsula bezala zegoen Botta jaunari igorri gutunean, kontatzen dio¹⁴, nola bakoitzaren moldaketak hamar orduko lana eraman dion, eta nola Tawalda Madhin irakasleari bidali dion honen iritzia jakitearren.

Eskuzkribu horietarik batzuk falaxa behartsuei erosiak dira, hala nola Abba Ahwan-i erositakoak; besteak beraxek kopiaituak edo besteei kopiaraziak. Kopiagileen artean Dabbara Hadgu agertzen da. 1845. urtean Etiopiako izkribatzailearik hoberentzat jotzen zen honek *Erregeen Historia* kopiaituko dio (nº 100). Kexu da Anton zenbaitetan kopiai lortzeko dituen eragozpenez eta hauek galarazten dioten denboraz, hala *Erregeen Historia* baten kopia-baimena lortzeko bi urte iragan behar izan zuen eta honen burutzeko beste bi. Bilketa lan hone-

11. *Le Messager de Bayonne*, 1856-III-2

12. Eugène Burnouf (Paris, 1801-1852), ekialdeko hizkuntzetan aditua, *Journal Asiatique* eta *Journal des Savants*- etan artikulua ugariren egilea, sanskritoan jantzia. Bere lanen artean: *Essai sur le pali* (1826), *Commentaire sur le Yagna* (1833-34), *Introduction à l'histoire du bouddhisme* (1845) ...

13. Job Ludolf (Erfurt, 1624-1704), jakintsu alemana, ekialdeko eta bereziki Etiopiako hizkuntzetan aditua. Bere obren artean: *Historia aethiopice sive descriptio regni Habysinorum* (1631), *Grammatica amharicae linguae* (1698), *Laexicon aethiopico-latinum* (1699)...

14. "Extrait d'une lettre à M. Botta, 14 septembre, Paris, 1849", *Euskal Erria*, 1897, p. 433.

tan bere anaia Eñautek lagundu zion behin baino gehiagotan, aurkituz eta erosiz batzu eta beste zenbait kopiaraiz (nº 52, 98, 99, 104). Anton Abbadiak eskertzen du ere biziki Justin de Urbin frantziskotarra berari zor baitizkio 194. aletik 217rainokoak, zeinek era berean batzu erosiak, besteak kopiatuak eta batzu beraxek sortuak, hala nola frantses-amariñña hiztegi eta gramatikak.

Aipatzen du ere Chrétien Dillmann¹⁵, orientalista alemanak Ingalaterran 1847tik 1848ra burutu egonaldian idatzitako katalogoa Londres eta Oxford-eko eskuzkribuekin, hala nola Vaticanoko Liburutegian zirenekoa.

Eskuzkribuetako gaiak era askotakoak dira, baina batipat Bibliarekin zerikusia dutenak, eta honen tradizio apokriforekin. *Sainduen bizitza anitz ere bada, musikaz, astrologiaz, mediku errezetak, erremedio majikoak, poesiak, kalenderrak eta hizkuntza buruzkoak* (nº 27, 39, 116, 146, 147, 160, 175, 182, 185). Hiztegi asko gaika eta ez abezedeka antolatua direlarik ez direla errazki erabiltzen ahal, diosku.

Hermas artzainaren itxorioa plazaratzen du 1860an etiopiarrez eta berak eginiko latinezko bertsioan¹⁶. Jakina da lehenik latinez 1513an Errenazimenduko Chrétien Lefèvre d'Étapes-ek eman zuela, eta eskuzkribu anitz egin zirela personai horren bizitza kontatuz, edizio kritikoa Robert Joly-k dioenez¹⁷.

Henri Barth-ek¹⁸ bidaiari eta geografo alemanak Afrika Erdialdeko hizkuntzez egindako hiztegi bilduma eta azterketari buruzko erreseinan¹⁹ dio zuzen burututako lana dela eta hizkuntzak bertakoekin, herrian bertan bizi delarik, ikasi behar direla, hark ikasi bezala. Aberatsa dela benetan osatu bilduma, baina akats bat baduela eta hori dela alfabetikoki antolatua ez izana. Bidenabar euskararekin konparazioak egiten eta parekotasunak aurkitzen saiatzen da, hala nola hizkuntzen sorreraz eta bilakaeraz dituen aurriritziak kritikatzin

Etiopiar monetez osaturiko bilduma Abbadiak egin zuen ere, eta beraiei buruz idatzi ohar zenbaitetan²⁰ esaten digu, baliatu nahi zela beraietaz bertako historia argitzeko, zailtasunak baitziren erregeen izen zerrendak erabakitze unean hala nola kristautasunaren sarrera datatzean. Dudak eta eztabaidak anitz direla, dio, ezen oraino etiopiar numismatika haurtzarogan dagoen, eta bera soil-soilik hipotesi hutsak botatzera ausartzen dela.

15. Chrétien-Frédéric-Auguste Dillmann (Illingen, 1823), Ekialdeko hizkuntzen katedra ukan zuen Tübinga eta Kiel-en. Bere ustez etiopiar hizkuntza semitika abarreko laugarren dialektoa litzateke. Bere lanen artean aipatu katalogoaz aparte: *Henoch-en liburua* (testu etiopikoa, 1851), *Grammaire de la langue éthiopienne* (1857), *Lexicon linguae aethiopicæ* (1865)...

16. *Hermas pastor*. Aetiopice primum edidit et Aetiopica latine vertit Antonius d'Abbadie. (Abhandlungen der Deutschen morgen ländischen gesellschaft). Leipzig, 1860.

17. "Une version éthiopienne lacuneuse, E, a été découverte par A. d'Abbadie; il l'a publiée en 1860, accompagnée d'une version latine. L'accord de cette version avec A est fort fréquent.", *Hermas, le pasteur*. Introduction, texte critique, traduction et notes par Robert Joly, 2e ed. Editions du Cerf, Paris, 1986, p. 63.

18. Henri Barth, (Hambourg, 1821- Berlin 1865), geografo alemana bere esplorazioak egin aitzin arkeologia, filologia, historia eta geografia ikerketak burutzen ahalegintzen zen. Batez ere arabea ezagutzen zuen ongi, eta bere obren artean hauek ditugu: *Exploration des côtes de la Méditerranée dans les années 1845...*; *Voyage et découvertes dans le Nord et le centre de l'Afrique*.. Eskuzkribu eder anitz bildu zituen.

19. *Journal Asiatique*, 1862, T. IX, 5 serie, pp. 419-424.

20. *Revue Numismatique*, 1868, T. XIII, pp. 21-40.

Kam hizkuntzez egindako lantxoan²¹, alegia, izen horren pean sar daitezkeen kamtiga, awga, yamma, naa, xe, doqua, gazamba, dawrowa, kafacco, gonja eta bija hizkuntzez hamasei berezitasun ematen dizkigu. Euskararekin dituzten parekotasunak ere aipatzen dizkigu hala nola zenbakiak hamaika hizkuntza ezberdinetan. Hauek bederen, gure uste apalez, ez dute deus ikustekorik euskerazkoekin.

Dena den, bere lanik handiena hizkuntza arloan 1881an argitaratu zuen Amariñña hizkuntzaz osatu hiztegia da²². Ez da nolana hikoia, mila orritik goragokoa baita. Baziren, noski, lehenago eginak, hala nola berak aipatzen dituen Ludolf-ena (1698), Isenberg-ena (1841), edota Sapeto-rena (1857). Lan gotor hau misiolari lazarista eta kaputxinoei eskeinia da, Etiopiako errejenerazioan hainbat eta hainbat lan egina zutenez, esker onez. Hamalau eta hamabost mila hitzen artean dauzka eta itzuliak dira denak, arazo ugari izan zituen arren, bai moldiztegiarekin latinezko transkripzioa egitea eskatu baitzioten, bai frantses ordainak ematerakoan. Halere, aurreko lan guztiak gaintitzen dituen omen da, eta ez da harritzekoa hainbeste urteren lanen fruitu denez. Burutzeko, gainera, eta zuzenketetan lagundu zioten Touvier, Coulbeau, Stahl, Taurin Cahagne misiolari eta jakintsuek hala nola Etiopia bertako irakasleek. Hitzaurrean gramatika ohar batzuek ere ematen ditu eta euskararekin konparazioak burutzen. Eta sailkatzerakoan amariñña hizkuntza, Gurageko hizkuntzekin batera semitiko-en azpi-multzoan kokatzen du. Hau da, afro-asiatikoen sail zabalagoan sartu behar dena, esate baterako gaztelania sailkatzerakoan, hizkuntza erromanikoetan eta hauek indoeuropear familia barnean sartzen diren gisara.

Esan dugu misiolari ei eskeinia zela, eta noski, honetaz baliatu ziren, baina baita abenturero eta kolonizatzaileak nola Arthur Rimbaud poeta²³, zeinek Etiopiako bidea hartu zuenean Abbadiaren hiztegia berekin eraman zuen.

Ortografia bere kezketarik handienetakoa zen, alegia, ahalik eta fideltasunik handienez hotsak irudikatzea. Hala 1882an idatzi beste lanean dio²⁴, zail dela benetan 24 letrez 48 hots ezberdin adieraztea, hots, hizkuntza horren errepresentazio zuzena ematea. Eta zenbait hizkuntzek, nola frantsesak, ingelesak eta alemanak hartu bidearen kontra agertzen da, digrama eta trigrafen sistema bizioz josia delako, eta logika hutsune ugari. Adibide gisa ere ematen du Muçaww'a hitza, eta nola transkribatua izan den hamalau modu ezberdinez gutxienez 1651tik 1882ra. Bere proposamena <w> eta <y> grafemen erabiltzea da, hala nola ikur diakritikoak eta kurtsiba, hiru hasperen ezberdinak adierazteko, adibidez. Beti ohi bezala gizalegez bukatzen du solasa, esanez, ez zituela entzuleak aspertu nahi, ttikikeriak iduritu gauzekin, aldez esploratzaile zorrotzak konprenitu behar zituen izkribatzeko modu ezberdinak izan daitezkeela eta ahalegin jeneralena, arruntena hartzen. *Detailtxo ttipienak ere baztertu ezinak direla, multzoa osatzen dutenean benetan garratzizkoak bilakatzen baitira.*

21. *Notice sur les langues de Kam*. Paris, Imprimerie Jouaust, 1872, 5p.

22. *Dictionnaire de la Langue Amariñña*. Actes de la Société Philologique, Tome 10. Paris, F. Vieweg, libraire-éditeur, 1881, 1334 pages

23. Henri Déherain, "Rimbaud en Afrique", *Figures coloniales*. Société d'éditions géographiques, maritimes et coloniales. Paris, 1931, p. 22.

24. "Sur l'orthographe des mots étrangers", Communication adressé à la Société de Géographie, le 2 juin 1882.

Sail etiopiko-arabikoa itxeko, Akademiako idazkari den Camille Doucet-i zenit hitzari buruzko igorri gutuna ezarri dugu²⁵, non Agosti Chahok²⁶ erabili prozedura beraz baliatuz, hau da, letrei mintzatzeko ahala emanez, *zenit*-ek (eta ez *zenith*-ek) bere burua nola zuzen idatzi behar den adierazten duen, modu benetan atseginean.

Atsegina izateaz gain, –hor daude noizbehinkako gertaera kontakizunak lagungarri–, zorrozatasuna eta zuzentasuna zirela Abbadiaren dohainak azpimarratu behar dugu behin eta berriro. Hala, euskal alorra ukitzen duelarik ere berdin jarraituko du, eta jadanik 1859an urtean “Altabizkarko kanta” aipatzean ingeles errebista batean²⁷, salatzen du 1835ean *Journal de l’Institut Historique* delakoan Garay de Monglave-k²⁸ argitaratu lana, asmakizun hutsa dela, hamar urte geroago Jean François Bladé-k²⁹ eta hogeit beranduago Wentworth Websterrek³⁰ berretsiko duten bezala.

Tartarua izeneko euskal ipuinaz idatzi lanean berriro Etiopiako beste antzeko ixtorioarekin konparatzen du, ondorioztatuz ezin dutela izan Homerorengan etorkia, nazioen bereizketan prehistorikoa baino lehenago baizik. Aipatzen digu ere nola jaso duen Eskiulako apezta den Heguiagarayengandik eta honek bere amari entzuna ziola, halaber Bordaxarren, Mauleko eskola zuzendariaren aldaera aipatzen du.

1876. urteko urtarrilaren 5ean Garikoitz eta Landerretche, Mauleko apezpei zuzendutako gutunean ez dago Abbadia konforme Cerquand-ek³¹ bildutako eta argitaraturiko lanarekin, ez dituelako herri emaitz horiek behar adinako zuzentasunez jaso, eta eskatzen die, arren, saia daitezen arbasoen altxor hori biltzen eta berari bildutakoaren berri ematen. Webster-ek ingelesez jaso bildumaren orijinala, alegia, euskerazko ixtorioak plazaratu gabe egon dira duela gutxi arte, eta hori Xipri Arbelbiden egin lanari zor diogu³². Halaber, Cerquand-en lanaren edizio eta azterketa berria Anuntxi Aranari³³, eta munduko kontu zenbaitekin dituen harremanak, berdintasun eta ezberdintasunak Julio Camarenari³⁴.

Anton Abbadia, beraz, hizkuntzalari eta literatur kritikari izan genuen, beste zientzi alor askorekin batera, ikerle izatearekin hauexek landu baitzituen eta ez nolana, eta euskera

25. Stella, “La science aimable”, *Euskal Erria*, Donostia, 1897, XXXVI, p.432

26. Augustin Chaho, *La guerre des alphabets, règles d’orthographe euskarienne, adoptées par la publication du Dictionnaire...*, Bayonne, Lespès, 1856.

27. *Gentleman’s Magazine*. London, 1859-I-31.

28. François-Eugène Garay dit de Monglave (Baiona, 1796), gazetari frantsesa. Bere obren artean: *Mon Parrain Nicolas* (1823), *Résumé de l’histoire du Mexique* (1825), *Conspirations des Jésuites en France* (1825)...

29. *Études sur l’origine des basques*. Paris, 1869.

30. *Basque poetry. Appendix à l’oeuvre Basque Legends collected, chiefly in the Labourd by...*, 2e. ed. Londres, 1879, pp. 258-259.

31. Jean François Cerquand (+1888), Paben Bordeleko Akademiaren inspektorea, ipuin bilduma hau argitaratu zuen: “Légendes et récits populaires du Pays Basque”, *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Pau* (1874-75- 76-77, 1884-1885) delako errebistan.

32. Xipri Arbelbide, *Euskal Ipuinak*. Klasikoak 56-57, Donostia, 1993

33. Jean François Cerquand, *Ipar Euskal Herriko Legenda eta Ipuinak. Anuntxi Aranaren Transkripzioa. Ipuinak, Fabulak, Parabolak*. Txertoa, 1985

34. Julio Camarena Laucirica, “Las peculiaridades de la cuentística vasca”, *Euskera*, 1992, nº 37, pp. 405-432.

bereziki. Honen etorkizuna anitz kezkatzen eta arduratzen zuen, Bréal-i³⁵ zuzendu gutunean ageri bezala. Semantikaren aita honi iritzia eskatu zion bilera batean, hizkuntzalariaren erantzuna besteen ustea jasoz aho-batekoa izan zelarik, alegia, baliagarria zela herri hizkuntzak gordetzea³⁶.

Baina ez dugu bukatu nahi aurkezpentxo hau esan gabe, titulu horietaz at, Mezenas handi bat ere izan genuela euskaldunok Abbadiarengan, nabari den bezala urtero bere poltsotik ordaintzen zituenez Lore Jokoak. Eta 1895eko uztailaren 26an zinatutako agirian hala-ber, zeren, hemen adierazten zenez, Zientzi Akademiari egin oparian, alegia besteak beste Abbadiako jauregia eta lurrak, baldintza ipinia baitzuen, Institutuak euskal literatura eta hizkuntza zaindu beharko zituela gutxienez ordurarte emazteak eta berak egin bezala³⁷. Ez da harritzeko bada ehun urte geroago bere oroitzapena hain bizirik egotea, eta errepikatzea garaiko koplariak zioena:

*Esker, beraz, eta ohore
Murde d'Abbad, zuri,
Gure herri on hau maithe
Hainbertze duzunari*³⁸.

35. Michel Bréal (Landau, 1832 - Paris, 1915), Hizkuntzalari frantsesa, Burnouf eta Bopp-en jarraitzailea, Collège de France-n (1864) gramatika konparatuaz arduratzen zen, eta Pariseko Société de Linguistique delako idazkari izan zen. Bere *Essai de Sémantique* (1897) ospetsuan bildu nahi izan zituen Alemaniari hizkuntzalaritzaren funtzionalismo formala eta frantses tradizio razionalista.

36. " Procès verbaux des séances du 6 avril au 22 juin 1895". *Bulletin de la Société de Linguistique*, n° 40, lxxxviii.

37. " L'Académie devra consacrer chaque année, comme M. et Mme d'Abbadie le font actuellement, une somme de onze cent francs à des distributions des prix pour les joutes et surtout pour la langue basque, dans les pays avoisinants", Pierre Gauja, *Les fondations de L'Académie des Sciences (1881-1915)*. Imprimerie de l'Observatoire d'Abbadia. Hendaye, 1917, pp. 429-430.

38. *Le Messager de Bayonne*, 1852-IX-30.